

5. kapitulua.—Ondareko diru-sarrerak: 19.200 euro.

Diru-sarrerak, guztira: 60.600 euro.

GASTUAK:

2. kapitulua.—Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea: 450 euro.

4. kapitulua.—Transferentzia arruntak: 60.150 euro.

Gastuak, guztira: 60.600 euro.

Antzinen, 2009ko ekainaren 8an.—Kontzejuko burua, Francisco Javier Lizarraga Mansoa.

L0919327

ANDOSILLA

Ezkontza zibilak egiteko eskumenen gaineko eskuordetzea

Alkate udalburuak ondoko ebazpena eman zuen 2009ko uztailaren 16n. Hona hemen haren testu osoa:

126/2009 Ebazpena, 2009ko uztailaren 16koa, Andosillako Udaleko alkate udalburuak emana, Andosillako Udaleko kideak eskuordetzen dituen, Alkatetzari dagozkion ezkontza zibilak baimentzeko.

Andosillako Udaleko Juan Enrique Sanzo Andrés alkate-udalburu naizen honek.

Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juri-dikoaren gaineko Erregelamendua onetsi zuen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 43 eta 44. artikulua bete beharrez, Alkatetzari honen eskudantziari dagozkionez, salbu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 eta 71. artikuluetan zehazten direnak, eta Kode Zibilaren 51.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz,

Ebatzi dut:

Lehen.—Ondotik aipatzen diren udalkideak eskuordetzea Alkatetzari dagozkion ezkontza zibilak baimentzeko

Alfonsa Pérez Muñoz.

Antonio Pagola Vicuña.

Bigarrena.—Udalkide delegatuek berek erabakiko dute zein egun eta ordutan erabili eskumena.

Hirugarrena.—Honako ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Andosillako Herriko Etxeko iragarki oholean ediktuak ikusgai edukitzea; hori guztia, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuan xedatua bete beharrez.

Laugarrena.—Ebazpen hau udalkide interesdunei jakinaraztea.

Bosgarrena.—Aipatu Errege Dekretuaren 44.4 artikuluan xedatuarekin bat, ebazpen hau Osoko Bilkurari jakinaraztea, organo kolegiatu horrek egiten duen hurrengo bilera".

Aditza ematen da orok jakin dezan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.r) artikuluan emandako eskumena erabiliz.

Andosillan, 2009ko uztailaren 16an.—Alkate udalburua, Juan Enrique Sanzo Andrés.

L0919581

ANTSOAIN

Jarduerarako lizentzia. Baimena

Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legean xedatua bete dadin, aditza ematen da honako ezaugarri hauek dituen jarduerarako lizentzia eman dela:

Lizentzia eman zen eguna: 2009ko ekainaren 24a. Eskatzailea: Inversiones Herlagar, S.L. Jarduera: bizikleta, motor eta quadren saltokia, erakustokia eta konpontzeko lantegia. Tokia: San Kristobal industrialdeko 13-15ean.

Antsoainen, 2009ko uztailaren 17an.—Alkatea, Antonio Gila Gila.

L0919652

ANTSOAIN

Aldaketa, Antsoaingo Udal Plan Orokorreko eraikuntzaren eta urbanizazioaren gaineko ordenantza. Behin betiko onespina

Antsoaingo Udalak, 2009ko maiatzaren 11n egindako osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Antsoaingo Udal Planeko eraikuntzaren eta urbanizazioaren gaineko ordenantzaren 6.A artikuluko aldaketa, balkoi, leiho, atiko eta kanpoko terrazan itxiera arautzen baitu. Hori 2009ko 71. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ekainaren 10ean.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluari jarraikiz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu

gabe iraganik, ordenantza horretako aldaketa behin betiko onetsi eta argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Antsoainen, 2009ko uztailaren 17an.—Alkatea, Antonio Gila Gila.

ERAIKUNTZAREN ETA URBANIZAZIOAREN GAINEKO ORDENANTZA

6.A. artikulua.—Diren balkoi, leiho, atiko eta kanpoko terrazan itxiera

1.—Tramiteak:

Balkoi, leiho eta/edo bide publikora jotzen duten kanpoko terrazak itxeko baimena lortzeko, prozedura honi segitu beharko zaio:

1.1. Higiezinako jabeen elkartearen erabakia, eta hartan, jasorik, elkartearen hitza, higiezinan egiten ahal diren elementuen itxierak diseinu berdintsua izanzen duela metalezko artziriari dagozkionez.

1.2. Obra lizentziaren eskaera.

1.3. Udalak, dokumentazioa ikusirik, behar den obra lizentzia onartuko du, betiere bermatzen bada arau hauek beteko direla.

2.—Eraikuntza:

2.1. Egungo metalezko baranda mantenduz eta haren barnetik eginen da balkoien itxiera.

Balkoi, hedatoki eta terrazan itxieretan (atikoak kenduta) debeku dira kanporatuko irekierak, baina zilegi dira gainerako sistemak

2.2. Kontraleihoak lerragarriak izan beharko dira.

3.—Osaera eta materialak:

3.1. Egungo barandaren heineraino, karelak zeharrargiak izan beharko dira metalezko profileriaren gainean. Garaieraren gainerakoa kristal gardenez izanen da, metalezko profileriaren gainean.

3.2. Ireki daitezkeen baoak ez dira inoiz karrika aldera irekiko.

3.3. Ireki daitezkeen baoaren azalera, gutienez ere, kristalezko frontearen %50 izan beharko da, eta aztertuko da nola garbi daitezkeen itxiturak kanpo aldetik.

3.4. Balkoi jarraituetan, etxebizitzaren arteko bitarteak arestian aipatu material eta irizpide berekin eginen dira.

4.—Atikoak:

4.1. Atikoetan debeku dira itxitura klase guztiak.

4.2. Salbuespenez, behar den lizentzia eskatu ondoren, atikoetan eraikuntza elementuak ezartzeko baimena emanen da, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Haien garaiera 60 cm baino gehiago ez izatea.

b) Haien osaerak, materialak eta tipologia eraikinaren arrotzia mantentzea.

c) Jabeen elkartearen baimena izatea.

5.—Eremu publikora jotzen duten kanpoko terrazak:

5.1. Eremu publikora jotzen duten terrazan itxiera ezaugarri hauei jarraikiz egin beharko da:

Itxiera toldo laukoa izan beharko da, aluminiozko egitura metalezkoan egin, 95 x 40 mm-ko sekzioa duten profiletan, bai zutoinetan bai luzerakoetan, izkinetan zutoin bikoitza paraturik. Hori guztia lotzeko, mihizatze orokorrerako altzairu herdoilgaitzeko bihuridikariak erabiliko dira, A2 herdoilgaitz motakoa.

—Toldoa bera material akrilikokoa izanen da, eta osaera izanen du aluminiozko gida, 95 x 40 mm-koa, aluminiozko estrusioko euskarriekin. "Almería" motako zotzeria eta pieza plastikoak, 6.6ko poliamidako injekzioak eta, toldoa finkatzeko, A2 altzairu herdoilgaitzeko bihuridikariak. Kolorea berde botila izanen da.

—Olanak 5.2 puntuan azaldutako ezaugarriak izan beharko ditu.

—Gidak, gutienez ere, balio hauek izan beharko ditu, kalkulatzeko:

• $I_x = 60.120 \text{ cm}^4$.

• $W_x = 12.240 \text{ cm}^3$.

—Profil guztiak tolerantziak izan beharko dituzte, UNE 380066/69 arauaren arabera. 6063 - H aleazioko lehen galdaldiko totxoetatik abiatuta estrusionatuak izan beharko dira eta gero, T- 5 motako tenplatze tratamendua hartu izanak.

—Lakatuko akabera hautsezko pinturan eginen da, Qualicoat berme arauen arabera, gris ilunean (RAL 7022).

—Toldoek ez dute publizitaterik izaten.

—Lurrean non nola finkatu, bahi bezala egiten ahalko da azpian lurpeko garajerik ez dagoen tokietan. Aldiz, garajerik bada, kasu eman beharko da, haren iragazkaitasuna babesteko. Halakoetan, Udalak ez du erantzukizunik bere gain hartuko, etorkizunean jabeen elkarteek erreklamaziorik eginez gero.

—Sustatzailearen bizkar geldituko da toldoa bera, eremu publikoan dagoen egitura izateagatik, nahiz barnean sortzen diren espazioak zaindu, mantendu eta garbitzeko ardura.

–Argitzeko eta berotzeko sistemak elektrikoak izan beharko dira. Gas bidezkoak badira, behar bezala homologaturik egon beharko dute, istripuak eragozteko.

5.2. Hona olanaren ezaugarri teknikoak:

Olan akrilikoa, berde botila kolorean.

–Euskarriak:

- %100 akrilikoa, Sunacryl masan tindatua, kanpora bereziki asmatu- turiko zuntza baita.

–Egitura:

- Irazkia: 30 hari/cm.
- Titulua: 34/2 zk.
- Bilbea: 15 hari/cm.
- Titulua: 34/2 zk.

–Zabalera:

- 120 cm +/-0,5 cm.

–Pisua:

- 295 gr/m² +/-%5.

–Akabera:

- Cleangard tratamendua. Toldoetarako berezia, zikinkeriarren kontra- koa, ustelgaitza eta uraren uxagarria.

–Schmerber:

- 350 mm gutienez (ISO 811/11 araua).

–Koloreen sendotasuna (UV):

- 7. A 8/8 (ISO 105-B02/94 araua).

–Koloreen sendotasuna:

- 7. A 8/8 (ISO 105-B02/94 araua).

–Koloreen sendotasuna, kanpoan:

- 7. A 8/8 (ISO 105-B02/94 araua).

–Spray testa:

- 5/5 gutienez (ISO 4920/81 araua).

L0919653

ANĒZKAR

Kontzejuaren ordenantza, Kontzejuaren aretoaren erabilera arautzen duena. Hasierako onespena

Añezkarko Kontzejuaren Batzarrak, 2009ko martxoaren 9an egin bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Kontzejuaren aretoaren erabilera arautzen duen ordenantza, Kontzejuarena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, onetsitako ordenan- tza jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

Jendaurreko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iragaten bada, ordenantza behin betiko onetsirik geldituko da, eta testua osorik emanen da argitara Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Añezkarren, 2009ko uztailaren 1ean.–Kontzejuko burua, Joaquín Lumbier Irisarri.

L0919523

AÑORBE

2008ko kontu orokorra. Behin betiko onespena

Añorbeko Udalak, 2009ko uztailaren 2an egin osoko bilkura arruntean, 2008ko aurrekontu orokor eta bakarreko kontu orokorra onetsi zuen, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 273. artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioiko Kontabilitate Bakuneko Jarraipidea onesten duen irailaren 21eko 273/1998 Foru Dekretuaren 117. arauan xedatuarekin bat.

Añorben, 2009ko uztailaren 9an.–Alkatea, José Ignacio Echeverría Ciordia.

L0919551

AÑORBE

Xehetasun azterlana. Behin betiko onespena

Añorbeko Udalak, 2009ko uztailaren 2an egin osoko bilkuran, behin betiko onetsi zuen Añorbeko Arau Subsidiarioetako UC-1 exekuzio uni- tatean David Echarte Yoldik sustatu duen xehetasun azterlana, Koldo Fernández Gaztelu eta Enrique Jerez Abajo arkitektoek prestatu- rik

dokumentazio teknikoarekin bat. Ikus-onetsia 2009ko martxoaren 27an eman zion EHAEoak.

Argitara ematen da, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari bu- rurzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Añorben, 2009ko uztailaren 9an.–Alkate udalburua, José Ignacio Echeverría Ciordia.

L0919555

ARELLANO

Aurrekontuko 1/2009 aldaketa. Behin betiko onespena

Aurrekontuan aldaketa hasiera batean onesten duen erabakia 2009ko 72. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ekainaren 12an. Jenda- rreko epean inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, aurrekontuko aldaketa hori behin betiko onetsi eta argitara ematen da, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

GASTUAK:

–Kreditu berezia:

Kontusaila: 432-60102.–Bideak konpondu eta moldatzea: 50.000 euro.

Guztira: 50.000 euro.

DIRU-SARRERAK:

–Finantzabidea:

Kontusaila: 1.870.–Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako: 15.310 euro.

Kontusaila: 720.01.–Diru-laguntza, Inbertsioetarako Estaruaren Fun- tsetik: 34.690 euro.

Guztira: 50.000 euro.

Arellanon, 2009ko uztailaren 2an.–Alkatea, Pedro Luis González Castillo.

L0919200

ARESO

Aresoko Udalaren 2009ko plantilla organikoko aldaketa. Behin betiko onespena

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 236. artikuluan ezarriari jarraituz, jendaurreko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iragan baita, behin betiko onetsi da 2009ko plantilla organikoa. Ha- sierako onespeneren iragarkia 2009ko 71. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ekainaren 10ean.

Aditzera ematen da, orok jakin dezan.

Areson, 2009ko uztailaren 3an.–Alkatea, Mikel Baraibar Garmendia.

PLANTILLA ORGANIKOA

Lanpostuen zerrenda

Idazkari/kontu hartzailea: A maila. Lanaldia: osoa. Sarbidea: O.L. Betebehar berezia: euskaraz jakitea. Lanpostuko osagarria: %10. Konta- bilitateko osagarria: %20,90. Egoera administratiboa: hutsik.

Zerbitzu anitzetako langilea: lanpostu kopurua: 1. Maila: E. Lanal- dia: osoa. Sarbidea: O.L. Betebehar berezia: euskaraz jakitea. Mailako osagarria: %12. Lanpostuko osagarria: %41,53. Egoera administratiboa: jardunean.

Langileen zerrenda

–Lan-kontratadun finkoen izenen zerrenda:

Zerbitzu anitzetako langilea: Jesús Javier Nieto Baranda. D maila. 1. gradua. Mailako osagarria, %12. Lanpostuko osagarria, %41,53. Egoera: jardunean. Sarrera eguna: 2004ko uztailaren 1a.

–Administrazio araubideko bitarte baterako langileen izenen zerren- da:

Idazkaria: Ione Miren Lazkoz Maiza. A maila. Lanpostuko osagarria: %10. Kontabilitateko osagarria: %20,90. Egoera: jardunean. Sarrera eguna: 2007ko urriaren 10a.

L0919170